


# Eriotza olerkari-gosez

Samin = tantak

Oi eriotz, eriotz zital! Bizitz-ariak ebagi ta iskirioz iri. Gordin! Eruki-izpirik eztok uŕean efayetan. Ire triskantzak galgaríak. Gazte-zale az. Lorarik usain-emolienak ondatzen dakik. Eztok gogotan adiñik: zaŕak nai gasteak bardin iruntsi-gura. Baňa, batez be, gazteak ik begiko. Aspaldiz, amoŕu bixian abil euzko-olerkari-aurka. Egunokaz be bi eroan dauskuzak. Bai. Zugatz gazte bi egotzi dituk lufera, aizkora ao zofotzez. Igaliz beteta, jator zetozan zugatz bizi, udabari-aroz, enboŕa zaŕastu... Negargaŕia! Baňa ik iri. Ago, ba, zital; abil ortik zistrin ori. Ni ixilera nayoak, ire samin-zauriak daostazan negar-tantak legortzen.



Gure luŕa, aspaldian, zurbil dakusgu. Ala-gogoa buru-gain jafí bai-litzakigu. Naigabe-lezan eusko-gogo olerki-zaleak. Biotzak, ostera, odolduak. Elertia il-jantziz. Nok baŕiro poz-izaŕari argi-erazo? Zek arantza-zauriak ertzez batu...?

Txoko baten ulu-dagie ezkiňak, eta gure lur maiteko bazter gustietaraño dal euren durundu ituna. Eres-oto ori dan minkatza, negar-eraz lez! Eusko-biotz bakotxari danbada ilkoŕa damotse. Goibel, odol-baldaŕez dipiñe biotz-soŕairua. Olerkari bi, maite-abesle erneak, udabari neskatz pertxenta, urdin-jantzirik eltzean, joanak. Ai! Begiai negaŕa darioe, uraldeka.

Gure Euzkera, mintzo eder, burua jasoz joyan, egunik-egun. Or-emenka, idazkortz bikaňak, gozoak, dezteran zoŕoztuak, ugarí jagi ziran. Saŕez-sail, danak iñarduen asmo bardínean, solo baten. Urliak, sandiak baño bikain txukunago. Danak ebiltzazan, alkaŕen leyan, Euzkera bardinbakoa landuten; baseri ta arkatx-etatik uriratzen, zarpil baldresak ken eta anderaño edergaluz, udalen-pitxiz apaintzen, «zernaitara, apurka, biguntzen». Baňa arlo ofetan irakasle genduna eriotz zitalak eroan dausku. Eta arek ase ezta, berealaxe bigaŕena. Oŕexek jaŕi ditu itxaso-lañoak iňun, asafe. Oŕexek daukoz gure gogoak abailduta. Oŕexek dakarsku negaŕa begira.

## “Lizardi,,

Agirre'tar Joseba Mirena, «Lizardi» il da, iñoen tamalez Epaña'ren 14'ko. izparringiak eta 19'ko. asterokoak. Auñeko igandean, 36 urtedun, bizitz-lokiak ausi ta Jaunaren albora egaztu zan. Betiko lurtarroi agur-egiñik, gorantza artu eban. Bere egada ori guretzat samiña! Umezurtzari aitaren eriotza baxen zoñotza. Eriotz andur, irea bai gurenda. Aokada ofek ez ete yok itoko ire gose bizia?

Udabafia eldu-garayan, ezin - itzal - argiruntz» egaztu zan «Iguzki'k ezin urtuzko egoz», urte giro-edertasunak, argi-begira uñetxindoñak lez, abestu ebazan olerkari bikaña. «Egamin ta geldimin naiz, aldi berean», dirakurku bere azken - olerkian. Gorantza, berantza... Il gura, bizi gura... Buñuka gogorá; ta, azkanez, egamiñak irabazi, ta joan yakun ainbat bidar ames eban zorion-aberíra. Jaunak beragana eroan dausku, ustelin likito artean ofen gogo zuria ezegoan ondo be ta. «Jainko-muño -gañetan» dabil, «Jainkozko Betean», beti zoriontsu.

Euskerea ta abería, Jaunaren uñengo, biotzez maite ebadana, beargiña; bere andezle batek eskartsu iñoanez, iñoren aintz-loratzara afirik jaurtzen ezeokiana; idazle jatorria, olerkaritzara-ko oldargi biziduna, abertzale zintzoa; ta, batez be, gurasoen eredu, siñiste berodun kistaña zan. Eta bere eriotz-ostean amai-ka idatzi da, bera dala-ta. Bai, ba; asko maite gendun, asko zor geuntsolako, ta bakotxak bere samiña iragari bear.

Burua argi, maitasunez biotza, arorik onenean aurkitzen zan. Gure sagastietako sagarondo bat iduri, igaliz beteak, adañak. Batzuk elduta; eltzeko ainbat. Baña orpoz gora jaurti dausku eriotzak. Eztogu geyago bere igalirik artuko. Eundaka eltzer eukazanak, eztira elduko. Zastada gogorá, egiz, gure euskera zañarentzat eta berau maite dogunontzat. Igali umotuak, oraiño, euskerazko idaz-lanak, olerki bardinbakoak, egunak-egun diran arte, iraungo dabe. Ezilkortasun-soñekoz apainduak baitira. «Baso Itzal» belaunik-belaun ikasiko dabe.

Oraindik ezta eusko-semerik bere amari onen jantzi ederík egin dautsonik. Nok idatzi ete dau *Biotz-begietan* olerki daztiñoa lakorik? Areik bai olerkiak, nai bañuz nai azalez! Biziak, sakonak, ebagiak, jatorfak, iduria ta adi gayez aberatsak, zoragarriak, «Itzal»ek, Baso'ren ume yaukalak irakatsiak, oneik bare-ifia darioenak, areik bioztunak, danak eder mamitsuak, danak biotz-begietan sortuak. Ta, jakiña! Eusko-Olerti-Jayetan bera nagusi, bere olerkiak sarigari. Baña... nagoan ixilik, ume ezjaña naz, beretzaz ezer esateko-ta.

“Loramendi,,

Lengo zauria, «Lizardi»ren eriotzak egiña, oraindik bizi diraugula, beste gazte baten eriotz eztenak biziagotu euskun. Bedoya'tar Jokin ana, «Loramendi»ren azken-agurak mindu ginduzan. Epañak 23, gotzona bai-litza, Donostia'ko buruñurdunen Egongua'n il zan.

Gaztea bera oraindiño, udabariz eundaka dakuskuzan lili antzera. Igaratz-egunez Jaupa bañia esatebo, Jauparitza bizi arek opa: «Apaiz ez izanak biotza mintzen dit, aita», iñean, iltzer. Lekaide ona, jainkozalea, Ama Miren biotz beroz kutun ebana zanak, iri-bareka, amaitu eban erbesteko ibiltaldia. Itz azkarkor oneik ebagi ebazan azken-orduan: «Zerura nijoia. Zerutik lagunduko zaituztet, zuei, euskerari, abefiari... gustioi». Jaunaren altzoan bego, oro izpi, oro lore, oro kanta.

«Loramendi»ren ospe-izena eusko-bañuti osora zabalduta egoan. Goi-goi aurkitzen zan olerkari-mañan. Orain urte bi, Tolosa'n ospatu zan olerti-gudura bidalitako olerkiak, «Afantzalien afats-otoitza» eritxonak, zaratarik asko ate.a eban. Igaz Ernani'n, III Eusko-Olerti-jayan, bañiz, «Loramendi» argia txapeldun, berak irabazi opazko saria. «Bañuntza-leyoan. Maite-kantak» olerkia sarigarí zan, izan be. Sakona, eztia, iduri-pitxiz ornia; gogai afunt-ezak, baña argiak; bañuntza-gora-berak oafez ikasiak egiña.

Erdel-elertietan gai onetzaz idatzi dabenak, asko dira. «Loramendi» ezta areik baño gitxiago. Euzkotárok berez gara maite-zaleak, eta gai onetan abesteko egokitasun bardingeak biotz-barnean ernemin daroaguz. Gabiltzazan bide ortatik, «Loramendi» lagun.

Beste iru olerkari bikain be gazte gaztetan il yakuz. «Eltzo», «Eñenderi» ta «Zubigar». Eurokaz zenbat elerti-pitxi galdu dogun, ezin geinke uler.

Negar dagigun, bai, gazte oneik obiratuak, igaliz beteriko zugatzak luñera jaurtiak dira-ta. Baña negar etsia izan bedi, kistáren negarfa, zotíñik bakoa. Negar dagigun, euren gomutea geure biotz-ormetan betiko josi dadin. Maitaleak maitearen argazkia aldian daroa. Daroagun guk be, aldi oro, oroi menean euren gomuta. Euren bidietatik gabiltzazan. Kistar onak, Jaungoiko-zaleak, siñeste berodunak, euzkerea ta aberia biotz-garez maite ebezanak, ziran. Antzeztu daiguzan, Gaste ofein laguntasuna beti izango dogu. «Zerutik lagunduko zaitustet», iñean «Loramendi»k.

SANTI, K. O.